

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Enpresa bat aurrera eramateko zenbait jarduera bete behar dira. Lehendabizi, aurrekontua ezarri behar da. Izan ere, finantzazioa aurkitu baino lehen beharrezkoa izango den kapitala zehaztu behar da. Horren ondoren, plangintza egin beharko litzateke, egiten dugun guztiak orden bat jarraitu dezan eta dena benetan betetzen dela ziurtatu ahal izateko, zeinek egingo duen, zenbat denboran, zer beharko den...

Behin plangintza egin elkarrekin kontaktuan jarri beharko gara. Izan ere, gure produktua aurrera eramateko gure enpresaren kanpoko elkarrekin beharko ditugu. Horien artean: diseinurako, produkzioarako, banaketarako...

Hortaz aparte, publizitatearen arloan ere sartu beharko gara eta horretarako marketinean aditua den norbait beharko dugu, pertsona indibiduala zein ekipo bat, segun eta zer behar dugun bata edo bestia aukeratuko dugu edota prezioaren arabera errentagarriena dena aukeratuko dugu. Bezeroen harremanekin ere lagunduko digute, izan ere gure produktua begi publikoaren esku egongo da nahiz eta hasieratik ez duten denek edukiko erosteko aukera. Horrela, gure produktua Instagramen eta beste sare sozialetan egongo da. Sare sozialen bidez ere bezeroei laguntza eskainiko diegu, dudak edota arazoak izango balituzte azkar konpontzeko aukera izateko. Horrela ere, sare sozialak ez badira nahikoak arazoa konpontzeko fax-a, email-a eta telefonoa ere eskuragarri egongo dira eta arazoa oso larria bada enpresako tekniko batekin kontaktatzeko aukera egongo da. Horrela ere, urtero errebisioak eskainiko dira.

Sare sozialetan eta publizitatearekin sortutako oihartzunaz aparte hitzaldiak eta ekitaldiak egingo ditugu jendeak produktua ezagutu dezan. Gure produktua eskolentzat dagoenez zuzenduta hasiera batean nagusiki eskoletan hitzaldiak egitea ikasleen irrika sortzeko ondo egongo litzateke, baita ere irakasle tradizionalen interesa pizteko. Aldi berean, produktuaren funtzionamendua zehaztuko da. Izan ere, produktuaren funtzionamenduaren bideo bat sare sozialetan egongo da zientzilikatuta bertatik edozeinek produktuaren funtzionamendua ikus dezan.

Hau guztia kontrolpean edukita garapenean pentsatu behar da, produktua garatzeko egingo dugun inbertsioa eta horretarako aukeratuko dugun ekipoa. Zein hobekuntza egin daiteken dagoeneko dugun produktuarekin. Bezeroek eskatzen dutena ere kontutan hartu beharko dugu eta horren arabera hobekuntzak eskaini ere. Produktuaren garapena aurrera doala produktua geroz eta pertsonalagoa izango da eta gama desberdinak egongo dira.